

Prozedura hauei buruzko ebazpenak 59/2000 Dekretutik eratorritako 2000. urterako Enplegu Publikoaren Eskaintzaren ebazpenean eragina izan dezake, Administrazioari Laguntzaileen Kidegoari dagokionez, hain zuzen.

Horregatik guztiagatik eta Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen Legeak, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak emandako idazkeran, 49.1 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

1.— Aipatutako espedientearen interesdunak izan daitezkeenei bederatzi eguneko epea jartzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean lehenago esandako prozedurako alderdi bezala aurkezteko aukera izan dezaten.

2.— Honako hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko irailaren 12a.

Funtzio Publikoaren zuzendaria,
FERNANDO TOÑA GUENAGA.

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4895

AGINDUA, 2006ko urriaren 4koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2004ko abuztuaren 21eko agindua —Udalak parte-hartzaile dituzten babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen prozedurei buruzkoa— aldatzen duena.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2004ko abuztuaren 21eko Aginduaren —udalak parte-hartzaile dituzten babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen-prozedurei buruzkoa— helburua honako hau da: babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari, eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 11. artikulua garatzea, 4. idatz-zatiari dagokionez, artikulua horretan zerrendaturiko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzkoa.

Agindu honen bitartez, 2004ko abuztuaren 21eko Agindua aldatzen da; hain zuzen ere, udalak eskuratu duten sustapenetan babes ofizialeko etxebizitzaren onuradunek bete beharreko baldintzak aldatzen dira, babes ofizialeko etxebizitzaren onuradunei eskatu beharreko diru-sarreraren aldi konputagarria bat etor dadin

La resolución de estos procedimientos puede afectar a la resolución de la Oferta de Empleo Público del año 2000, derivada del Decreto 59/2000, en el cuerpo Auxiliar Administrativo.

Por ello, de conformidad con lo preceptuado en el artículo 49.1 de la Ley Reguladora de la Jurisdicción Contenciosa-Administrativa, redactado por la Ley 29/1998 de 13 de julio.

RESUELVO:

1.— Emplazar a los posibles interesados en el referido expediente para que puedan comparecer en el plazo de nueve días ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del TSJ del País Vasco y personarse como parte en el procedimiento antes citado.

2.— Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de septiembre de 2006.

El Director de Función Pública,
FERNANDO TOÑA GUENAGA.

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

4895

ORDEN de 4 de octubre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, de modificación de la Orden de 21 de agosto de 2004, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimientos de adjudicación de viviendas de protección oficial en los que intervienen los Ayuntamientos.

La Orden de 21 de agosto de 2004 del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales sobre procedimiento de adjudicación de viviendas de protección oficial en los que intervienen los Ayuntamientos tiene como objeto el desarrollo del artículo 11 del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo en su apartado 4 relativo al procedimiento de adjudicación de las viviendas de protección oficial que relaciona.

La presente Orden modifica de la Orden de 21 de agosto de 2004 en el sentido de modificar los requisitos de los beneficiarios de vivienda de protección oficial en las promociones en las que intervienen los Ayuntamientos para que el período computable de los ingresos a exigir a los beneficiarios de las viviendas de pro-

zozketa arautzeko oinarrietan udalek ezarritako aldi konputagarriarekin.

Horren arabera, eta azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuaren —Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena— 5. artikuluan eta abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren —babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari, eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa— 11. artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraiki, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.— Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2004ko abuztuaren 21eko Aginduaren —udalak parte-hartzaile dituzten babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen-prozedurei buruzkoa— 2. artikuluari azken paragrafo bat erantsi zaio, honako testu honekin:

«3.— Diru-sarrerak zenbatzeko, zozketa arautzeko oinarriak onartu ziren dataren aurreko zergaldia hartuko da kontuan, eta kasu horietarako, abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren —babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantziario-neurriei buruzkoa— 21. artikuluan araututako hasiera emateko aginduaren argitalpen-data hartuko da oinarriak onartzeko datatzat.»

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko urriaren 4a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

tección oficial se ajuste al período computable que los propios Ayuntamientos determinen en las Bases reguladoras del sorteo.

En su virtud y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5 del Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales y en el artículo 11 y disposición adicional primera del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo,

DISPONGO:

Artículo único.— Se añade un último párrafo al artículo 2 de la Orden de 21 de agosto de 2004 del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimientos de adjudicación de viviendas de protección oficial en los que intervienen los Ayuntamientos, que tendrá el siguiente texto:

«3.— Para el cómputo de los ingresos se tendrá en cuenta el período impositivo inmediatamente anterior a la fecha de aprobación de las bases reguladoras del sorteo, que a estos solos efectos se equipara a la fecha de publicación de la Orden de inicio regulada en el artículo 21 del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.»

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de octubre de 2006.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.